

ALKARREKIN
soraluze eginez



**LAN ARDATZ ETA
PROIEKTU LEHENETSIEN
PROPOSAMENAK**

2014ko martxoaren 8rako dokumentua

AURKIBIDEA

0	DOKUMENTUAREN AZALPENA.....	4
1	ZER DA ALKARREKIN SORALUZE EGINEZ?.....	5
2	ETORKIZUNERAKO BISIOA.....	6
3	ARLOETAKO LAN ARDATZ ETA HELBURUAK	6
3.1	Hezkuntza.....	6
3.2	Ingurugiroa	8
3.3	Lurralde antolaketa.....	9
3.4	Euskara	11
3.5	Ongizatea	13
3.6	Garapen ekonomikoa.....	15
3.7	Kirola	17
3.8	Kultura.....	18
3.9	Parekidetasuna.....	19
3.10	Gazteria	20
4	ARLOETAKO LAN ARDATZ ETA HELBURUEN GARAPENA.....	21
4.1	Proiektu multidisziplinarrak.....	21
4.1.1	Herri identitatea indartu, herriaren historiaren ezagutzak eta bizipenak elkartrukatzuz, ikertuz eta eskuragarri jarriz.....	21
4.1.2	Herri identitatea indartu, ibaia eta mendia aisialdi, kirol eta hezkuntza ekimenetarako erabiltzea sustatuz. 22	
4.1.3	Talde sozial eta kultural ezberdinen arteko kontaktu eta interakzioak erraztu.....	22
4.1.4	Jarduera fisikoaren praktika bultzatu.....	23
4.1.5	Jasangarritasuna eraiki kontsumo ohituretan, berrerabilpenean eta birziklapenean sakonduz.	23
4.1.6	Herritarren arteko elkartasun mekanismoak landu, beharizan egoeran dauden pertsonen laguntzeko.....	24
4.1.7	Bertako produktuen ekoizpen eta kontsumoa bultzatu.	24
4.2	Arloen lanketa espezifikoak Udal Batzordeetatik.....	25

4.3	Alkarrekin Soraluze Eginezen izaera matriziala.....	27
5	KOMUNIKAZIOA	27
6	ANTOLAKETA.....	27
6.1	Proiektu multidisziplinarren lantaldeak.....	28
6.2	Arloen lanketa Udal Batzordeetatik.....	28
6.3	Teknikarien koordinazio gunea.	28
6.4	Batzar orokorra.....	28

0 DOKUMENTUAREN AZALPENA

Dokumentu honetan Alkarrekin Soraluze Eginez prozesuaren ondorioak eta aurrera begirako proposamenak jaso dira. Ez da behin betiko dokumentua, martxoaren 8an jasoko diren ekarpenekin itxiko da dokumentua.

Lehen puntuan prozesuaren zergatiak, funtzionamendua, osaketa... azaltzen dira. Horrekin batera aurrera begira ere kokatzen da prozesua.

Ondoren, bigarren eta hirugarren puntuetan prozesuaren ondorioak daude. Hilabeteetako hausnarketaren ostean etorkizuneko Soraluze eraikitzeke norabidea zehazten da bertan. Lehenik Soraluzerako bisio bat, etorkizunean Soraluze nola irudikatzen den azaltzen da. Ostean arloz arlokako lan ardatz zein helburuak xehatu dira.

Laugarren puntuan ikuspegi estrategiko hori praktikara nola eramaten hasi proposatzen da. Bertan 2014rako proiektu eta erronka proposamenak daude. Berauek baloratu eta lehenetsi ostean, garapenean pausoak ematen hastea tokatuko da.

Bukatzeko antolaketa ereduaren proposamena dago, aurreko guztia egin ahal izateko ezinbestekoa izango delako antolaketa eta funtzionamendu egoki bat osatzea.

1 ZER DA ALKARREKIN SORALUZE EGINEZ?

Soraluze biziberritzeko oinarriak jarri nahi dituen prozesua da Alkarrekin Soraluze Eginez. Orain urtebete inguru hasi zuen bere bidea, eta esku artean daukazuen dokumentua da egindako lanaren lehen emaitza.

Nondik sortzen da horrelako prozesu bat garatzeko ideia? Soraluze geldotzen, zahartzen... zihoala datuetan zein pertzepzioetan ongi oinarritutako sentimendu nahiko zabaldua zen herritarren artean. Herria zein herritarrak “inpass” egoera horretatik atera eta herriaren alde aktibatzeke tresna moduan erabaki zen prozesu hau aktibatzea.

Zergatik Alkarrekin Soraluze Eginez izena? Prozesuaren ezaugarri nagusienetako bat parte hartzea izan behar zela argi ikusi zen hasieratik. Parte hartzea anitza izatea nahi zen gainera. Etxe batekoak edo bestekoak izan herriaren alde egin nahi duen edozeinentzat gustuko espazioa eraiki nahi izan da. Horregatik Alkarrekin Soraluze Eginez izena, eta batez ere “Alkarrekin”. Eta ondorioz orain arteko ibilbidean herritarrak, herriko eragileak, teknikariak zein zinegotziak izan dira protagonista.

Zer irudikatzen du logoak? Oinarri nagusi gisa Deba ibaia hartu da. Bi kontu nagusigatik: Alde batetik herrigune guztia bere inguruan antolatuta dagoelako eta bestetik ibaiak ezaugarri interesgarriak dituelako, bizitza dauka eta sortzen du, badator eta badoa etengabeko berrikuntza islatuz, beste herri eta pertsona batzuekin konpartitzen dugu (ez da soilik soraluzetarrena) eta horrek beste pertsonetikiko, ama-lurrarekiko ardura eta begirunea lantzeko aukerak ematen ditu.

Ibaiari gainera ekarpen berezia egiten dio Soraluzek bere mendietatik datozen erreken bitartez. Erreka bakoitzak berea, daukan onena ematen dio ibaiari. Ez dago erreka berdinek, pertsona eta ikuspegi berdinek ez dagoen bezala. Eta noski hori ez da arazo bat, hori aberastasuna da. Desberdinak maitatzen ikastetik, elikatuko dugulako berezi izatearen harrotasuna, herri zein pertsona moduan.

Aurrera begira zeini dagokio guzti hau garatzea? Prozesua herriarentzat pizgarri izan nahi duen momentutik, garapenaren oinarrian herritarrak kokatzea klabea izango da. Prozesua herriarena izatea nahi da, ez udalarena bakarrik (zinegotzi edota teknikariena nolabait). Zinegotzi zein teknikariek ardura berezia izango dute Alkarrekin Soraluze Eginez bultzatzeko, baina prozesuaren ardura orokorra ahalik eta konpartituena izan behar du erronkak bete nahi baditugu. Egongo dira izaera herritarragoa izango duten asmoak eta egongo dira izaera instituzionalagoa eduki dezaketenak, horren arabera ardura mailak zehaztu beharko dira. Kirol zein kultur elkarte, arlo ezberdinetako eragileak, enpresa, instituzio, herritar soilak... bakoitzak beretik baina guztion esku dago gure herriaren etorkizuna!

2 ETORKIZUNERAKO BISIOA

Soraluzeko herritar guztion ongizatea, kalitatezko bizitza bermatzeko lan egingo dugu. Horretarako gure historia, ondare eta nortasunetik abiatuz berrikuntza eta jasangarritasuna oinarri izango dituen garapen ekonomikoa eta herri kalitatea sustatuko ditugu. Soraluzetarron oinarrizko beharrez gain, behar afektibo eta emozionalak asetuko dituen herria eraikiz.

Guzti honen oinarria herritar, elkarte, udal zein bestelako instituzioen arteko auzolana izango da. Errespetua eta kudeaketaren gardentasuna ardatz izanik.

3 ARLOETAKO LAN ARDATZ ETA HELBURUAK

Etorkizuneko Soraluze eraikitze arloz arlo ondorengo lan ardatz eta helburuak lantzea ondorioztatu da Alkarrekin Soraluze prozesuan.

3.1 Hezkuntza

Hausnarketa prozedurarako prestatutako diagnostikoan jasotzen zen moduan, hezkuntza zeregin partekatua da. Eskolak eta familiak funtsezko eginkizuna duten arren, onartu beharra dago beste eragile askok ere parte hartzen dutela zeregin horretan. Hezkuntzak herriko bizitza osoari eta herritar guztiei eragiten die, ez da egintza bakartua, soilik eremu zehatz eta finko batzuetan garatzen dena. Zentzu honetan, hausnarketa saioetan, hezkuntza sistema formalaz gainera, sistema ez formala eta informala ere aztertu ziren. Era berean, arreta eskaini zitzaaien ere hezkuntza prozesuaren osagarri diren gainontzeko eragile, espazio eta dinamikei.

Herriko Hezkuntza Proiektu integrala definitzearen beharra izan zen oinarrizko ideia. Soraluzerako nahi dugun proiektuaren inguruan hausnartzeko beharra daukagula azaleratu zen. Bide honetan ezinbestekoa ikusi zen komunitatea batuko duen guneak bermatzea. Hausnartzeko, elkarlanerako eta harremanetarako balioko duen tresna bermatzea hain zuzen ere. Era berean, komunitatea sendotzeko bidean, gurasoen parte hartzea areagotzea eta ikaslea subjektu aktibo kontsideratzearen ideiak nabarmendu nahi izan ziren.

Hezkuntzaren gaineko ikuspegi ezberdinak errendimendu akademikoaren inguruko eztabaidetan azaleratu ziren. Hezkuntza merkatuaren mesedetara jarri edota garapen pertsonalerako eta herriaren garapenerako tresna kontsideratzea. Emaizak garrantzitsuak badira ere, hauek lortzeko klabea ikasleen oinarrizko gaitasunak garatzeko metodologia bultzatzean dagoela ondorioztatu zen.

Herritik herrirako hezkuntza proiektua definitzea, herri identitatearen lanketan sakontzea, sortuta dagoen komunitatea batzea eta gurasoen parte hartzea areagotzea izango dira besteak beste, etorkizun hurbileko erronkak hezkuntza arloan. Helduen hezkuntza eta azpiegiturak lehentasunez landu ez baziren ere, etorkizunean eutsi beharreko gaiak izango dira.

LAN ARDATZA	ERAGILEEN ARTEKO HARREMANA-ELKARLANA: HAUSNARKETA eta EGITASMO KONPARTITUA
Helburuak	Hezkuntza komunitatea sendotu: harremanak, elkarlanerako eta hausnarketarako guneak bermatu
	Herritik herrirako Hezkuntza Proiektuan sakondu. Diagnostikoan jasotako printzipioak barne bilduko dituen Hezkuntza proiektua sustatu.
LAN ARDATZA	GURASOEN INPLIKAZIOA
Helburuak	Eskola Inklusiboaren proiektua sendotu.
	Guraso Elkarateak indartu eta dinamikoak bihurtu.
	Antolatzen diren ekintzetan, eskolan zein eskolaz kanpo, gurasoen parte hartzea bultzatu.
	Familien parte hartzea bultzatu beren seme alaben hezkuntza prozesu osoan: etxean, eskolan, eskolaz kanpoko ekintzetan...
LAN ARDATZA	HELDUEN HEZKUNTZA SUSTATZEA
Helburuak	Bizitza osoan zehar hezkuntzarako aukerak bermatu.
	Langabezia dauden pertsonen formakuntza hobetu.
LAN ARDATZA	HERRI IDENTITATEA LANDU: HIZKUNTZA, KULTURA, INGURUAREN EZAGUTZA
Helburuak	Euskal kultura eta herri identitatea landu
	Euskararen ezagutza eta erabilera bultzatu
	Herriaren ezagutza bultzatu
LAN ARDATZA	ERRENDIMENDU AKADEMIKOA HOBETU
Helburuak	Ikaslearen garapenerako beharrezkoak diren gaitasuna orokorrak eta oinarrizkoak garatu: sormena, kritikotasuna, irakurmena, hizkuntza eta komunikazioa.
	Hezkuntza-ingurune egokia garatu eta ahal den neurrian ikasteko oztopoak ezabatu, eskola porrota murrizteko
	Ikasleen oinarrizko gaitasuna garatzeko metodologia bultzatzea
LAN ARDATZA	AZPIEGITURAK ETA ESPAZIO PUBLIKOA
Helburuak	Hezkuntza azpiegiturak hobetu. (Lehen Hezkuntzako ikastetxean patioko estalpea ixtea, Bigarren Hezkuntzako ikastetxea eta Musika eskola eraberritzea ...)
	Espazio publikoa handitu. Hori antolatzerako orduan haurraren iritzia kontutan hartzea. Plan Orokorra egiterakoan kontutan hartuko dela bermatu.
	Peatonalizatutako guneetatik kanpora haurren autonomia bermatu.
	Parke ereduaren gainean hausnartu.

3.2 Ingurugiroa

Etorkizuneko herri ereduaren gako asko ditu bere barnean ingurugiroak, beraz arlo garrantzitsu bezala identifikatu da beraz prozesuan zehar. Alde batetik natur ondarea berreskuratzea eta bestetik jasangarritasuna lantzea kokatu dira elementu klabe gisa.

LAN ARDATZA	IBAIAREKIN KONTAKTUA BERRESKURATU
Helburuak	Ibaiaren erabilerak definitu
	Ibaia aisialdi eta kirolerako erabili / urarekin erlazionatutako jarduerak sustatu.
	Deba Ibaiaren Hiri irudia hobetu. Ibaia begira dauden eraikinen irudia hobetu.
	Ibaia alboetako bideak berreskuratu eta paseo-bideak eratu
	Ibaiaren erabileraren inguruko sentsibilizazio ekintzak eta aktibitateak sustatu.
LAN ARDATZA	MENDI IBILBIDEAK BERRESKURATU + BASOBIDEZ INIZIATIBA ETA TURISMO NATURALA SUSTATU
Helburuak	Kirola, turismoa eta naturarekiko errespetua bultzatu
	Soraluzeko mendiak eta gaur egungo ibilbideen ezagutza eta erabilpena indartu.
	Herri bide gehiago berreskuratu, herri-bideen sarea indartuz.
	Aisialdirako aukerak sustatu.
	Herriko iturburu eta iturriak berreskuratu.
	Espezie autoktonoen landaketa bultzatu (bereziki Karakate inguruan).
	Kirol zein kulturako aktibitateak bultzatu mendietan
	Garbiketa kanpainak sustatu mendietan; adar, zuhaitz zein gizakiak utzitako hondakinen garbiketa.
	Geoparkean sartu al izateko gestioak ahalbideratu.
	Natur turismoa. Karakateko lotutako turismo zerbitzuak sustatu.
LAN ARDATZA	KONPARTITU, BERRERABILI, SENTSIBILIZAZIOA
Helburuak	Jendearen ohiturak / kontzientziazioa LANDU (erosketa eta kontsumo arduratsua, zentzu zabalean, ez bakarrik elikagai eta arropen inguruan, baita energia, etxebizitzak...)
	Jendearen mentalitatea aldatu "jabego-alokairua", "elkarbanatu", eta abar.
	Erosketa egiten den unetik sentsibilizatu zaborra ez sortzeko.

LAN ARDATZA	BIRZIKLAPEN TASA GEHITU
<u>Helburuak</u>	Birziklatzearen garrantziaz sentsibilizatu eta birziklapen % jakin bat zehaztu eta hau lortzeko plana definitu eta bultzatu.
	Hondakin organikoen kudeaketa eta konposta aurrera eramateko aukerak aztertu eta aplikatu.
LAN ARDATZA	ENERGIA BURUJABETZA SUSTATU
<u>Helburuak</u>	Energia kontsumoa gutxitzeko neurriak hartu.
	Energia berriztagarriak bultzatu.
	Kale argiteriaren eta udal eraikinen kontsumo eredugarri bihurtu.
LAN ARDATZA	MUGIKORTASUNA
<u>Helburuak</u>	Garraio publikoko zerbitzua hobetu eta bere erabilpena sustatu.
	Bidegorriaren erabilpena sustatu. Maltzagarako zatia eta sare lokala egiteko aukerak aztertu.
	Oinezkoen trafikoa erraztu, erdigunean bertan zein erdigunera heltzeko bideak erraztuz.

3.3 Lurralde antolaketa

Herria eraikitzea da Soraluzek datozen urteetan izango duen erronkarik handiena. Beti ere, eraikuntza hitza zentzu zabalenean ulertuz eta ez hirigintzako ikuskera soil gisa; ez, alegia, etxebizitza politikan oinarritutako zabalkundeari mugatuta.

XXI. mendeko hirigintzak eta, hortaz, herria eraikitzeak benetako behar eta premiei erantzun behar die eta ez alderdikeriei. Izan ere, herriaren premiak eta gaitasunak izan behar dira kontuan, arazoak abagune bihurtu eta, herritarrek eta eragile ezberdinek behin eta berriz horrela eskatu arren, arrazoi bat edo besterengatik urteetan jaramonik egin ez zaion horri irtenbide bat ematen saiatu behar da. Udalerrri honen erronkarik handiena ez da etorkizuneko Soraluze diseinatzea soilik, baizik eta herria diseinatzea, antolatzea eta eraikitzea, politika integratzaileak oinarri hartuta, gizarte-eragileen eta herritarren parte-hartzearekin, Soraluzeren benetako premiei erantzungo dien herria izan dadin, konpetitiboa eta jasangarria ekonomia arloan eta erakargarria kanpokoentzat, natura- eta herri-guneak eskaintzen dizkiguten aukerak sustatuz.

Herriak hurrengo erronka hauei aurre egin beharko die etorkizunean:

- **Mugikortasuna eta irisgarritasuna:** Soraluze soraluzetarrentzat herri erakargarria izatea lortu behar da, irisgarritasuna hobetuz, herri jasangarriagoa eginez, ibilgailuen erabilera mugatuz eta, aldi berean, aparkalekuak bermatuz bai erdialdean bai kanpoaldeko auzoetan, oinezkoen eta ibilgailuen bateragarritasuna lortuz. Garraio publikoaren loturak hobetu, bai eta bidegorrienak ere.
- **Deba ibaia** herriaren ardatz. XXI. mendeko Soraluzek ez luke inolako zentzurik izango Deba ibaiak bereganatu behar duen indar, gaitasun eta protagonismorik gabe, bai herriaren bizitzarako baita soraluzetar guztion bizitzarako ere. Izan ere, ibaiari bizkar emanda bizi izan

baikara urte askoan.

- Soraluze herri erakargarri bihurtu behar dugu, urteetan zehar izandako **jaitsiera demografikoa** gelditzeko. Salbuespenak salbuespen, atzerriko etorkinak izan dira herrian erroldatu diren bakarrak. Horrela izanik, Soraluze herritarrentzat inguru atsegina izan dadin politikak bultzatu behar dira.
- **Garapen jasangarria** ez da soilik ingurugiroa eta paisaia indartzera datorren zerbait, baizik eta ikuspegi hirigileari loturik dagoen zerbait. Hiri jasangarriztat ulertuz hondakin gutxiago eta isurpen txikiagoak sortzen dituen herria eta hiri-bideetako trafikoa murrizten duena bide horiek oinezkoentzako utziz. Eta teknologia berriak aurrerapauso hori emateko lagungarri izan daitezke eta izan behar dute. Argiteria publikoa aldatzea eta egokitzeak, Soraluzek argindar-sare “adimenduna” izan dezan, gure herria erreferente bihur dezake.
- Ingurune hondatuak edo hondatze arriskuan dauden gunek, Olea eta Loralde esaterako, **leheneratzea, zaharberritzea eta birgaitzea**, bai eta herri-erdigunea onbideratzea ere, horretarako eraikinak berriztatzea eta merkataritza biziberritzea bultzatuz.
- Arazoak **aukera** bihurtzeak datozen urteetan gauzatu behar den hirigintza-politikaren erreferente izan behar du. Izan ere, SAPAK, Olako zubiaren eta Santa Ana kalearen arteko lotuneak eta industria-guneek gaur egun ematen dituzten arazoek udalerrria hobetzeko eta birgaitzeko aukera ezin hobeak eskain diezazkiokete gure herriari.
- **Udal ekipamenduak** balioan jartzea, hauen garrantzia soraluzetarren bizitza sozialean oinarritzakoa baita. Udal instalazioen erabilera bultzatzeko, ekipamendu mailan eskaintzen zaizkion aukerez jabetu egin behar du herritarrek, bai eta instalazio horiek eskaintzen dizkieten zeharkako zerbitzuez ere. Komenigarria litzateke udal instalazioak eta ekipamenduak balioan jartzeko kanpainak burutzea, eta aipatutako instalazioak nola garatu edo handitu daitezkeen aztertzea ere bai, udalerrriaren premiei egokitzeko.

Jarduera hauek guztiak eta prozesuan zehar azaldu diren beste hainbat lantzeko, Hiri Antolaketarako Plan Orokorra abian jarri du Udalak, herritarren parte-hartzea bermatuko delarik plangintzaren baitan. Prozesu hau 2014an eta 2015ean burutuko da.

3.4 Euskara

Euskarak herrian bizi duen egoerak kezkatuta dauzka aspaldi soraluzetar asko eta asko. Euskaldun kopurua behera egiten hasi da, ama hizkuntza moduan euskara duten herritarrak gutxiago dira eta herriko etxe zein kaleetan geroz eta euskara gutxiago entzuten da, baita haur eta gazteen artean ere.

Egonezin eta kezka horiek oso presente egon dira saioetara bildu direnen artean, bai eta egoera horri aurre egiteko dinamika eta estrategia berriak diseinatzen hasteko beharra ere. Geldialditxo bat egin eta eguneroko dinamikatik harago begiratzeko balio izan dute saioek, orain arte egindako ibilbidearen kontzientzia hartu, arloz arlo egindakoa aztertu eta hutsuneak eta hobetzekoak identifikatzeko.

Horrekin batera, baina, komunitatea osatzeko balio izan du prozesuak. Saioetara bildu diren ia ehun herritarren konbentzimendu eta hizkuntzaren gaineko kontzientziak errefortzu handia jaso du.

Ondoren azaltzen diren lan ardatz eta helburuak zirriborro moduan ulertu behar dira, oraindik euskararen plana itxi gabe dago eta.

LAN ARDATZA	FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA
Helburuak	Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea.
	Transmisioaren inguruko informazioa jasotzea, egungo egoera ezagutu eta neurriko eskuartzeak garatzeko.
	Familia barruan euskararen erabilera sustatzea.
LAN ARDATZA	IRAKASKUNTZA
Helburuak	Euskararen jakite-maila eta erabilera hobetzeko prestakuntza sendotu eta metodologia berriak garatzea.
	Ahozko hizkuntza-jarduna lantzea, bereziki eremu soziolinguistiko erdaldunagoetan.
	Euskararen erabilea soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea.
	Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea
	Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea.
LAN ARDATZA	EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZEA
Helburuak	Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak diseinatu eta garatzea.
	Ikas-prozesu osoa udalerrian burutzeko modua eta prozesuaren finantzazio sistema egonkorra ahalbidetzea.
	Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak.
	Etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea.

LAN ARDATZA	ADMINISTRAZIOA
Helburuak	Administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzea.
	Euskara ere lan hizkuntza izateko neurriak hartzea.
	Langileen euskara-gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartzea.
	Hizkuntza erabiltzeko irizpideak finkatzea.
	Administrazioen arteko elkarlana areagotzea.
	Kanpoko komunikazioan euskararen erabilera gehitzea.
LAN ARDATZA	ARLO SOZIOEKONOMIKOA
Helburuak	Enpresetan euskara planak zabaltzeko babesa eta laguntza ematen jarraitzea.
	Euskara enpresa munduan erabiltzeari prestigioa ematea.
	Herritarrengan eta merkatari edo ostalariengan eragitea, herritarren hizkuntza hautuari egoki erantzuteko, hizkuntza paisaia zaintzeko.
LAN ARDATZA	AISIA
Helburuak	Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea.
	Begiraleen prestakuntza sendotzea.
	Aisialdiko ekimenetan erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea.
	Etorkinen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko euskarazko aisialdi programa egokiak antolatzea.
	Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea.
	Herritarrentzat kirolaren eremuan erakargarriak diren jarduera, ekintza eta zaletasunetan euskarazko eskaintza areagotzea eta horren eskaera sustatzea.
LAN ARDATZA	LIBURUGINTZA
Helburuak	Euskarazko irakurzaletasuna sustatzea.
	Euskarazko irakugaien marketing-a antolatzea eta merkatua zabaltzea.
LAN ARDATZA	KULTURGINTZA
Helburuak	Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea.
	Euskarazko sorkuntza sustatzeko neurriak hartzea.
	Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea.

LAN ARDATZA	CORPUS-PLANGINTZA ETA EUSKARAREN KALITATEA
Helburuak	Udalerriko toponimia eguneratu, osatu, ofizializatu eta zabaltzea.
	Adierazkortasuna zaindu eta indartzeko neurriak hartzea.
LAN ARDATZA	HEDABIDEAK
Helburuak	Euskarazko hedabideen garapen iraunkorra ahalbidetzeko neurriak hartzea.
	Euskarazko hedabideen garapen industrial eta teknologikoa bultzatzea.
	Hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzea.
	Erdal hedabideetan, publiko zein pribatuetan, euskarazko edukien presentzia areagotzea.
	Hedabideetako hizkuntzaren kalitatea bermatzea.
LAN ARDATZA	INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK
Helburuak	Euskarazko baliabide teknologikoen gaineko informazioa bateratu eta zabaltzea.

3.5 Ongizatea

Herritarren kezka nagusia soraluzetarron gizarte-ongizate maila hobetzea izan da, argi izanik horrek guztion aukera berdintasuna eskatzen duela, batez ere egoera ahulenean daudenena. Ongizate maila hori hobetzeko Alkarrekin Soraluzen aurkeztu ziren proiektu guztiak (Auzolana, zahartzaro aktiboamendekotasuna, etb) oso garrantzitsutzat eta beharrezkotzat jo ziren.

Pertsona guztiek beraien bizitza modu duinean garatzeko aukera berdintasuna izan dezaten oinarritzat da gutxieneko baliabide ekonomikoak izatea eta baita gizartean lanaren bitartez txertatzeko duten eskubidea gauzatu ahal izatea.

Bestalde, guztiok kontuan hartuko gaituen Soraluze herria eraikitzen jarraitu ahal izateko denon parte-hartzea ezinbestekoa da. Horretarako pertsona nagusien ongizatea bermatu beharra dago, bizitza duina izan dezaten baldintzak sortuz eta herriko txoko guztietara heltzeko irisgarritasuna erraztuz.

Beste herrialdeetatik etorritako jendea duintasunez bizitzea eta gure kulturaren barneratzea lortu behar da, beste kulturekiko elkartrukea sustatuz eta harremanen bidez aberastuz. Horrek elkarbizitza baketsua bermatuko du.

Bizi izateko nahikoa baliabide izateaz gain etxebizitza duina ere ezinbestekoa da gizon emakumeok bizimodua garatu ahal izateko. Etxebizitza askoren egoera ez da ona gure herrian. Gazteek etxebizitzaren arazoa daukate eta etxe-gabetze kasuak ere ari dira gertatzen. Bestalde, etxebizitzaren

alokairuak inguruko herrietan baino merkeagoak direnez, kanpotar jendeak alokatu ditu kasu askotan, batez ere beharrian egoeran dauden kanpotarrak. Horrek herritar batzuen kezka sorrarazi du.

LAN ARDATZA	LAN KOMUNITARIOA BULTZATU (AUZOLANA)
Helburuak	Akzio boluntarioa motibatu, sare sozialetan herritarrak inplikatzuz, ekintzetan parte hartuz integrazioa lortzeko.
	Talde sozial eta kultural ezberdinen arteko kontaktu eta interakzioak erraztu, gizartean modu egokian funtzionatzeko gaitasuna garatuz.
	Kulturartekotasunarekin lotu.
	Motibazioa landu
LAN ARDATZA	ZAHARTZARO AKTIBOIA + MENPEKOTASUNA
Helburuak	Gure herriko nagusien bizi kalitatea hobetu ahal izateko hauen partaidetza, segurtasuna, harremana eta osasun aukerak sustatuz, zahartzaro aktiboa lantzeko prozesuak definitu eta aurrera eraman.
	Esperientziak eta ezagutzak elkartrukatzeko interes taldeak eta komunitateak sortu
	Menpeko pertsonak zaindu eta laguntzeko forma berriak azertu.
	Menpekotasuna murriztu edo hauei , mendekotasun-maila eta hainbat talde edo gainerako gizarte bazterketa saihesteko, duintasunez bizitzeko minimoak bermatu.
LAN ARDATZA	KULTURARTEKOTASUNA
Helburuak	Komunitate bat sortu, elkarrekin gustura biziko den komunitatea.
	Herriko eragile eta testuinguru desberdinetan aurrera eramaten diren aktibitateek kulturartekotasun kontzeptua barneratuta izan dezaten bermatzea.
	Etorkin kolektiboari beharrian desberdinetarako egin beharreko gestioetan laguntasuna eta atentzioa eskaini.
	Akzio boluntarioa sustatu etorkin kolektiboari aktibitate sozial desberdinetan integrazioa eta partaidetza ahalbideratuz horretarako elkarbizitzarako inizatiba partekatuak eginez.
	Arrazismo eta xenofobiaren aurrean akzio sozial desberdinak sustatu dibertsitate kulturalaz baliatuz.
	Eragile kultural desberdinen arteko kontaktu eta erlazioak sustatu testuinguru multikultural baten bizitzeko kapazitatea ahalbideratuz.
	Etorkinen egonkortasuna bermatu.
	Talde desberdinak irekitzea lortu, bai etorkinak zein tokikoak
	Integrazioarako borondatezko ekintza motibatu

LAN ARDATZA	SARE SOZIALEN ERABILPENA SUSTATU
Helburuak	Baztertuta izan edo izateko arriskuan dauden pertsonen sare sozialetan (presentzial eta baita birtualetan ere) barneratzeko beta eman.
	Adineko pertsonen gaitasun berriak eta erlazio sozial onuragarriak garatzea ahalbideratu.
LAN ARDATZA	ETXEBIZITZA
Helburuak	Soraluzeko herritarren etxebizitza premiak modu integral batean landu, etxebizitza horiek kalitatezkoak izan daitezen eta prezio duina izan dezaten lan eginez.
	Etxebizitza hutsak alokatzea bultzatu, hauen portzentajea handituz.
	Hausnarketa bat sustatu etxebizitza ereduaren inguruan. Zergatik izan behar dute etxebizitza guztiak 2-3 logela, sukalde bat, komuna eta egongelarekin. Gaur egun behar desberdinak daude gizartean eta beharbada beste etxebizitza eredu batzuk lantzen hasi beharko litzateke.
	Edadetu eta ezinduen beharrei erantzun.
	Etxeen birgaitzea bultzatu.
LAN ARDATZA	TXIROTASUN ETA BAZTERKETA SOZIALA
Helburuak	Gaur egun Soraluzeko herritarrek laguntza sozialen eta hauek jasotzen dituzten kolektiboenganako duten pertzepzioa aldatzen saiatu beraien benetako errealitatea azalduz.
	Laguntza hauek jasotzeko eskatzen diren baldintza zehatzak herritarrei helarazi pertsona hauen benetako egoera azalduz.

3.6 Garapen ekonomikoa

Herriaren etorkizun egoki baterako sare ekonomikoaren ehuntzeari garrantzi berezia eman zaio prozesuan.

Nekazaritza jardunak azken urteetan jasan duen beherakada irauli eta sektore hau berrindartu beharra argi ikusi da.

Industri jarduna aztertzeke garaian hutsune nabaria izan du prozesuak (enpresetako parte hartze txikia egon baita), ondorioz 2014an udaletxetik erronka moduan hartu da sektoreari begirako lanketa espezifikoak egitea.

Merkataritzak ere egoera kaxkarra bizi badu ere, aurten egin den ikerketa eta lanak erakusten du neurri baten behintzat guran dagoela egoera kaxkar hau iraultzeko baliorik handiena, aurrera begira herri bizi batentzat tresna garrantzitsutzat kokatu da.

LAN ARDATZA	NEKAZARITZA
Helburuak	Gaur egun dagoen aktibitatea mantendu. Baserrien dibertsifikazio ekonomikoa bultzatu.
	Nekazaritza aktibitatea sustatzea gazteen artean, nekazaritza lurak eskuratzeko bideak jarritz.
	Formazio saioak antolatu.
	Aktibitate ekonomikoa indartzeko azpiegiturak egin, landa eremuetako bizi kalitatea hobetuz.
	Bertako haziak mantentzeak duen garrantziaz jabetu.
	Nekazari eta herritarren arteko harremanak sendotzea. Bertako eta garaiko produktuak erosteko herritarrei erraztasunak ipini: erosotasuna.
	Kontsumitzaileak bertako eta garaiko produktuak kontsumitzeak osasunean, herriko aktibitate ekonomikoan eta inguruko paisaian duen eraginaz jabetu.
	Nekazaritza produktu bat baino gehiago bezala ikustea; ekintza sozial bat, ingurua txukun mantendu, kultura mantendu.
LAN ARDATZA	MERKATARITZA
Helburuak	Bizikale, merkatarien elkarteak, indartu: kide kopurua handitu, eta bere jardura eta kudeaketa profesionalizatu (planifikazio batekin, merkatarien arteko elkarlan sendo batekin,...).
	Udalaren eta merkatarien arteko elkarlana indartu: elkarrekin ekintzak antolatu eta koherentzi batekin lan egin.
	Herri bezala eskaintza komertzial lehiakorra izan: bereziki, landu beharreko alorrak saltoki aniztasuna eta produktu barietatea, produktuak balioan jartzea, irisgarritasuna eta erakargarritasuna, garapen teknologikoak eskaintzen dituen aukerekin hobeto baliatzea dira.
	Jendeak herrian erosi dezan sentsibilizatu.
	Herritarren behar eta eskaeretara egokitzeko gaitasunean sakondu.
	Herritarren "trantsitua" sustatu herriko kaleetan zehar: herriko kaleak erakargarri egin kolektibo ezberdinentzat.
LAN ARDATZA	PERTSONEN ENPLEGUGARRITASUNA
Helburuak	Herritarrek enplegu egonkor eta kalitatezkoa eskuratzeko dituzten aukerak hobetzeko enplegu kudeaketan parte hartzen duten erakundeekin lankidetzak sustatu.
	Eskualdeko jardun ekonomikoarekin eta enpresen beharrezanekin bat datorren formazioa garatu, horretarako Soraluzeko bizilagunen segmentazioa burutu, ekintzak nori zuzendu behar diren jakiteko eta hauen beharrezanetara egokitzen diren ekintzak egiteko.
	Pertsonen formakuntzarako enpresen, Udalaren eta erakunde publikoen arteko lankidetzak eraiki.
	Giza kapitalean eginko inbertsioa handitu eta hobetu

	Enpleagarritasuna bigarren sektoreari begira soilik landu beharrean, modu global batean egin behar da, lehen sektorea eta merkataritza ahaztu gabe, hauek ere balioa daukatelako eta garrantzia hartuaz joan direlako Soraluzen.
LAN ARDATZA	ENPRESEN KONPETITIBITATE MAILA HOBETU
<u>Helburuak</u>	Industria arloko plana egin.
	Enpleguaren iraunkortasuna bermatu, berau bultzatuz eta Soraluzeko enpresen lehiakortasuna bermatuz.
	Aktibitate enpresarial berriak sustatu.
	Soraluzeko aktibitate enpresariala transformatu.
	Herriko enpresak herriko eragile bezala identifikatzea eta inplikatzeara.
	Herriko zein eskualdeko enpresen arteko kooperazio inter-enpresariala bultzatu.

3.7 Kirola

Kirol instalazioen eskaintza eta martxan dauden kirol elkarteetako jarduna ondo baloratu da prozesuan zehar. Hala ere beharrezkoa ikusi da kirol berrien praktikari begirako lanketa handiagoa egitea eta horretarako kirol instalazioak moldatzea ere beharrezkoa ikusi da.

Guztia era egokian aurrera nahitaezkoa ikusten da herriko agente ezberdinen elkarlana eta parte-hartzea sustatzea. Horretaz gain, oso garrantzitsua da herritarra proiektuen sortzean zein garapenean inplikatzeara. Kirol teknikariaren figura agente garrantzitsua bada ere, beharrezkoa ikusi da ekintza eta proiektuak aurrera eramango dituzten pertsonen lan talde bat eratzea eta ekintza bakoitzean arduradun nagusi bat ezartzea.

LAN ARDATZA	KIROL INSTALAKUNTZAK
<u>Helburuak</u>	Egun dauden azpiegiturak hobeto aprobetxatu.
	Frontoien erabilpena sustatu.
	Futbol zelaiaren erabilpena handitu, batez ere futbol denboralditik kanpo.
	Kirol akitibitate berrietara azpiegiturak egokitu.
	Baliabideen erabilera arautu.

LAN ARDATZA	EGUNGO AKTIBITAEETAN PARTAIDETZA SUSTATU ETA OHIKOAK EZ DIREN KIROLEN PRAKTIKAK BULTZATU
Helburuak	Herrian egiten diren kirol aktibitate ezberdinetan ematen den partaidetza sustatu.
	Kirol aktibitateetan emakume eta 12-16 urte bitartekoen partaidetza sustatu eta aktibitate zehatzak planteatu.
	Partaidetza gutxi duten aktibitateak eraldatu edo erakargarriagoak egin kolektibo desberdinen partaidetza sustatuz.
	Herritarrek kirol taldeetan integrazio maila handiago bat izan dezaten sustatzea.
	Herrian gaur egun egiten ez diren kirolen praktika bultzatu.

3.8 Kultura

Kulturaren arloko hausnarketa prozesurako prestatutako diagnostikoan jasotzen zen moduan, edozein gairen inguruan erraz biltzen den herria da Soraluze. Kultur talde asko dago herrian eta asko dira, halaber, taldeok antolatzen dituzten ekintzak. Bizitasun horren froga izan dira arloari buruz aurrera eramandako saioak. Kultur eragile eta kulturzaleen parte hartzea oso esanguratsua izan da, baita lanerako erakutsitako prestutasuna eta gogoia ere.

Indar hori modu egokiagoan bideratzen asmatu beharra nabarmendu da, kulturgintzan dihardugun eragileon arteko elkarrezagutza eta koordinazioa hobetzeko eta dagoeneko ugaria den kultur eskaintza orekatu eta ugartzeko. Guzti honek lagunduko du herri nortasuna indartzen eta ondarea berreskuratzen zein transmititzen.

LAN ARDATZA	HERRITARREN PARTE HARTZEA
Helburuak	Herritarren parte hartzea eta kultura ekintzailtza bultzatzea.
	Herritarrei kultur sorkuntzarako bideak eskaintzea.
	Herritarrek kultura eguneroko bizitzan modu natural batean bizitzea.
	Etorkinak Soraluzen modu aktibo batean integratzea kulturartekotasuna bultzatuz, bi norabideko elkarrizketa indartuz (eman eta jaso).
LAN ARDATZA	KULTURA BALIOAN JARRI. (HERRI IDENTITATEA INDARTU)
Helburuak	Berezkoa eta bertakoa duguna ezagutu, bildu eta zabaltzea (ohiturak, ondarea, historia...).
	Herriaren historian sakondu nahi duten interes taldeak sortu.
	Belaunaldien arteko esperientzien transferentzia.

LAN ARDATZA	KULTURA ANTOLAMENDUA
Helburuak	Baliabide eta tresna egokiak taldeen eskura jartzea.
	Udalak bere jardunean kulturari behar besteko toki eta garrantzia ematea.
	Herri kultura, herri ikuspegitik abiatuta eta autogestio bidez kudeatzea.
	Elkarteen arteko harremana, koordinazioa eta elkarrekintza bultzatu.
	Elkarreak indartzea eta beraien lanaren kalitatea sendotzea.
	Herrialdeko udaletako kultur sailen arteko elkarlana bultzatu.

3.9 Parekidetasuna

Prozesuan propioko landu ez bada ere arlo guztietan zehar-lerro moduan landu da. Ondorioz arlo guztien lan ardatz eta helburuetan kontuan izan da. Berauen garapena ere modu egokian egingo dela bermatzea ezinbestekoa izango da.

LAN ARDATZA	SORALUZEKO II. BERDINTASUN PLANA
Helburuak	II. Berdintasun plana egin.
	Lehen planaren ebaluaketa sakon bat egin.
LAN ARDATZA	EMAKUMEEN AUTONOMIAREN GARAPENA
Helburuak	Emakumeen arteko sareak sortu eta genero kontzientzia zein balioen aldaketa indartu.
	Emakumeen ahalduntzea sustatzea.
LAN ARDATZA	GENERO INDARKERIA: SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA HEZIKETA
Helburuak	Pertsonal politikoarekin lanketa berezia egin
	Emakumeen kontrako indarkerian arloan herrian dagoen errealtatea azaleratzeko informazio eta kontzientziario ekintza zehatzak aurrera eraman
	Genero indarkeriaren larritasunaz herritarrak informatu, sentsibilizatu eta kontzientziatu, emakumearen duintasuna arriskuan jartzen duten jokabideak baztertuz eta gaitzetsiz.
	Gazteen artean genero indarkeriaren gaia bereziki landu: maitasuna eta kontrolaren arteko desberdintasuna argitu eta sare sozialek dituzten ondorioak ikusarazi.
	Etxeko kultura landu.

LAN ARDATZA	GENERO INDAKERIA: ASISTENTZIA INTEGRALA
Helburuak	Herri mailako protokoloa berraktibatu
	Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak dauden laguntza eta baliabideez informatu.
	Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta integral eta pertsonalizatua bermatu prozesu guztian zehar, dauden baliabideak ahalik eta hobekien erabiliz, babes instituzional eta segurtasun pertzepzio handiagoa izan dezaten.
	Lantalde teknikoaren funtzionamendua eta koordinazioa hobetu.

3.10 Gazteria

Azken urteetan, bereziki haurtzaroko, nerabegaroko eta gaztaroko etapak ardatz dituzten esku hartzeek gero eta indar eta garrantzi handiagoa hartu dute. Haurrei, nerabeei eta gazteei beste udal arlo eta udalaz kanpoko sistema orokorragoetan (hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, lana, etxebizitza, kultura, etab.) ematen zaien arreta osatzea da egun udaleko gazteria arloa egiten diharduen lanaren helburua.

Helburu hori lortzeko bidean, duela urte bete ezkerro Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistemako (GAZTEMATIKA) partaide da Soraluzeko Udala. Aipatutako sistema erakunde askoren arteko sarea da, Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Udalek osatzen dutena, bestelako gizarte eragile batzuen parte hartzearekin. Sistemaren helburuak haur eta gazteak gaitzea, laguntzea eta haurtzaroa nahiz gaztaroa bere osotasunean bizi ditzaten baliabideak ematea dira. Laguntza hori erantzukizun publikoko hainbat zerbitzuen bitartez ematen du sistemak eta zerbitzu horiek barnean hartzen dituzte informazioa eta orientabidea, bide-laguntza, aisialdi hezitzailea, partaidetzarako bideak eta kultura-sorkuntzarako eta produkziarako bideak.

Aipatu sistema horretan lehendabiziko pausuak ematen dabil orain Udala, Foru Aldundiko Gazteria Sailaren aholkularitzapean, eta apurka-apurka sistema garatzen joatea dira hurrengo urteetan sailak izango dituen zereginak.

4 ARLOETAKO LAN ARDATZ ETA HELBURUEN GARAPENA

Behin arloetako lan ardatz eta helburuak definituta, horiek garatzen hastea tokatzen da. Horretarako bi bide jorratuko ditugu. Alde batetik udal batzordeetan arlo bakoitzeko lehentasunak zehaztu eta horiek abian jarriko dira, beste alde batetik proiektu multidisziplinarrak¹ jarriko dira abian. Proiektuetatik zein arloetatik egingo den lanak Alkarrekineko helburuak elikatuko ditu eta parte hartzean oinarrituko dira.

4.1 Proiektu multidisziplinarrak.

Arlo ezberdinetako ikuspegiak jasotzen dituzten proiektuak dira. Berauen garapenerakin arlo ezberdinetako helburuak elikatuko dira ondorioz.

Alkarrekineko eztabaiden ondorioak aztertuz ondorengoak dira 2014an abiatzeko aukeran proposatzen diren proiektuak.

4.1.1 Herri identitatea indartu, herriaren historiaren ezagutzak eta bizipenak elkartrukatu, ikertuz eta eskuragarri jarri.

Helburuak	Ekintza posibleak	Parte hartzea
Herriaren historiaren inguruko (armagintza, gerra zibila, ibaia, ohiturak,...) ezagutzak eta bizipenak elkartrukatu eta ikertu.	Memoriaren bankua sortu	Herritarrak, Pilpilean, Ahotsak, Soraluze 1936, Itxaropena, Kukumixo, Kontrargi, Udaletxea, Hezkuntza Zentroak...
	Armagintzak Soraluzen izan duen garrantzia historikoa ikertu	
	Bertako jaiak berrindartu: San Blas, Gaztañerre eguna...	
	Euskal aratosteak landu	
	Herriko euskara ondarea jaso (euskalki, toponimia, deklinabidea...)	
	Herriko argazki zaharrak erabili hauekin Soraluzeko historia jakitera emateko (erakusketak egin kalean, liburuak argitaratu, DVDak...) eta hauekin erlazionatutako kontakizunak batu	
	Herrian dagoen artxibo eta dokumentazioa landu.	
	Nagusi eta umeen arteko esperientzien transmisioa landu.	
	Herriko abesti zaharrak batu eta herritarren eskura jarri.	
	Soraluzeko "X" marabilak definitu	
Hezkuntza formalean eta ez formalean txertatzeko herri historiaren inguruko materiala sortu, bere erabilera bermatuz.	Euskal kulturaren inguruko unitate didaktikoa sortu (Euskara eta euskalkia, ohiturak, mitologia...).	
	Armagintzaren inguruko eta herri historiaren inguruko unitate didaktikoa sortu	

¹ Se puede definir un equipo multidisciplinar como un conjunto de personas con diferentes formaciones académicas y experiencias profesionales, que operan en conjunto, durante un tiempo determinado, abocados a resolver un problema complejo, es decir tienen un objetivo común. Cada individuo es consciente de su papel y del papel de los demás, trabajan en conjunto bajo la dirección de un coordinador.

4.1.2 Herri identitatea indartu, ibaia eta mendia aisialdi, kirol eta hezkuntza ekimenetarako erabiltzea sustatuz.

Helburuak	Ekintzak	Parte hartzea
Mendia aisialdi, kirol eta hezkuntza ekimenetarako erabili; berau mantenduz eta ekintzak sustatuz.	Espezie autoktonoak eta bioaniztasuna bultzatu	Herritarrak, Mendi taldea, Hezkuntza zentruak, Baserritarrak, Debegesa, Udaletxea...
	Landaretza autoktonoen seinaleztapena, hezkuntza zentroetako haur eta nerabeek egindako kartel eta deskribapenen bidez.	
	Ondare geologikoa ezagutu eta aztertzeko aktibitateak bultzatu: txango edo irteerak, kirol ekintzak, bisita zientifikoak edo/eta hitzaldiak, ikerketa bekak eta jarduerak (Elhuyar eta Aranzadi bekak)	
	Dolmenen ibilbidea sustatu/ baita BTTak ere.	
	Herri-bide gehiago berreskuratu, sarea indartuz.	
	Garbiketa kanpainak sustatu mendietan; adar, zuhaitz zein gizakiak utzitako	
	Herriko adineko pertsonekin hitz egin bere garaian zeuden mendi-bideak adierazi eta berreskuratzeko.	
	Herriko iturburu eta iturriak berreskuratu.	
	Megalitismo eta geologia ibilbideekin unitate didaktikoak egin.	
Ibaia aisialdi, kirol eta hezkuntza ekimenetarako erabili, eta hauek, sustatu.	Ibaiaren eguna antolatu hainbat ekintzen bidez: batelak, arrantza lehiaketa, baltsa jaitsiera...	
	Ibaia garbitzeko inizatiba kolektibo parte-hartzaileak sustatu, lan-munduan zein sozialki txertatzeko programen zein auzolanen bidez	
	Ibaiarekin lotuta dauden tokiko bizi espezieen eta argazkien bilduma jaso eta bertan dauden espezie inbaditzaileak errotik ekiditeko kanpaina.	
	Harpasoak berreskuratu ibaian	
	Ibaiaren garrantzia historikoa eta bertan egindako aktibitateak ezagutzera eman	

4.1.3 Talde sozial eta kultural ezberdinen arteko kontaktu eta interakzioak erraztu.

Helburuak	Ekintzak	Parte hartzea
Talde sozial eta kultural ezberdinen arteko kontaktu eta interakzioak erraztu, gizartean modu egokian funtzionatzeko gaitasuna garatuz	Sentsibilizazioa lantzeko, esperientzia eta istorio desberdinak elkarbanatzeko saioak antolatu; bizipenen elkartrukea.	Herritarrak, Pilpilean, EPA, AEK, Etorkin kolektiboa, Elkarrekin gastronomikoak, Kultur eragileak, Udaletxea...
	Kultura desberdinetako aktibitate artistikoak.	
	Kultura desberdinetako ohiturak partekatzeko ekintzak egin, beraiek izanik antolatzaileak: gastronomia, aktibitate sozialak/ludikoak.	
Gizarte kulturantzaren balioak elikatu euskal kultura oinarri dela	Euskara eta erdara ikasteko planak / adaptazio linguistikorako saioak / eskola kanpoko aktibitate linguistikoak	
	Mintzalaguna etorkinei egokitu.	
	Herriko hizkuntza aberastasuna baliatzeko ekimenak antolatu.	

4.1.4 Jarduera fisikoaren praktika bultzatu.

Helburuak	Ekintzak	Parte hartzea
Ohikoak ez diren kirolen praktikak bultzatu, integrazioa ahalbideratuz	Kirol desberdinen egunak antolatu (Atletismo, Herri kirolak, Cricket, Baseball...)	Herritarrak, Kirol elkarteak, Galtzagorrixak, Kukumixo, Udaletxea...
	Erakargarrik diren jarduerak egin kirol jarduerekin batera: bazkariak, dokumentalak....	
	Koadrilen arteko Ginkana.	
	Kirol praktika mistoak sustatu.	
Herrian egiten diren kirol aktibitate ezberdinetan ematen den partaidetza sustatu	Egiten diren aktibitateen analisia egin: maiztasuna, pertsona kopurua.... Bereziki kontuan izan gazteak 12-16 urte eta emakumeak.	
	Inkestak egin asebetetze maila ezagutzeko.	
	Kirol ekintzen propaganda hobea egin (PiPilean, DV...)	
	Marraskilo Tour indartu eta txikientzako ibilbidea egokitu.	
	Igerilekua ikusgarri egin.	

4.1.5 Jasangarritasuna eraiki kontsumo ohituretan, berrerabilpenean eta birziklapenean sakonduz.

Helburuak	Ekintzak	Parte hartzea
Kontzientziazioa eta sensibilizazioa (erosketa eta kontsumo arduratsua, zentzu zabalean, ez bakarrik elikagai eta arropen inguruan, baita energia, etxebizitzak...).	Plastikozko poltsen erabilpena murrizteko aukerak planteatu (tupper, zapizko poltsen bitartez, etab).	Herritarrak, Bizikale, Hezkuntza zentruak, Soraluze zero zabor, Mankomunitatea, Debegesa, Udaletxea...
	Etxe uraren kontsumoa bultzatu (etxe, taberna, jatetxe...)	
	Gabonetan apaingarri jasangarriak ipini.	
	Uraren kalitatea zaindu aktibitateak egiteari begira.	
	Kotxeak konpartitzeko Internet atari bat sortu eta elkartzeko guneak finkatu.	
Erosketa egiten den unetik sensibilizatu zaborra ez sortzeko.		
Jendearen berrerabilpen ohiturak landu;	Bigarren eskuko merkatua sustatu.	
	Gauzak konpontzearen aldeko kultura indartu.	
Birziklatzearen garrantziaz sensibilizatu, birziklapen tasa bat zehaztu eta hauek lortzeko planak definituk eta bultzatu.	Sensibilizazio / informazio ekintzak.	
	Birziklatze tematikan mankomunitatearen rola eta lana ezagutu.	
	Herri mailan birziklapen tasa zehaztu eta betetzeko bideak ipini	
	Olio eta pilak batzeko sistema erraztu	
	Hondakin organikoen kudeaketa eta autokonposta zein auzokonposta aurrera eramateko aukerak aztertu.	

4.1.6 Herritarren arteko elkartasun mekanismoak landu, beharrian egoeran dauden pertsonen laguntzeko.

Helburuak	Ekintzak	Parte hartzea
Herriko beharrian egoeran dauden pertsonentzako baliabideak lortu (elikagai, jantzi...)	Baliabideak lortzeko kanpaina propioak egin herrian. Ikastetxe, Bizikale, gizarte ongizatearen inguruko elkarte eta udalaren artean koordinatuta.	Herritarrak, Caritas, Hezkuntza zentruak, Bizikale, Misio taldea, Janari bankuak, Udaletxea...
	Bolondres taldeak bultzatu, jasotako baliabideak banatu ahal izateko.	
Karitatekin harago, herritarren arteko elkartasun zentzua garatu	Herriko beharrian egoeran dagoen jendearen datuak (generikoak) herriratu.	
	Herrian guztiok ondo gizarteratuta egoteko gutxienekoak ezarri	

4.1.7 Bertako produktuen ekoizpen eta kontsumoa bultzatu.

Helburua	Ekintzak	Parte hartzea
Ekoizpen eta salmenta ahalik eta zuzenena bultzatu merkatariekin elkarlanean	Ekoizle, merkataria eta kontsumitzaileen arteko aliantzak sustatu.	Herritarrak, Baserritarrak, Bizikale, Kontsumo taldea, Debemen, Debegesa, Hezkuntza zentroak Udaletxea...
	Ekoizle lokalen eta jantoki zentroen artean (jantetxe, ikastola, zaharren egoitza) hornidura itunak sinatu.	
	Bertako edo ahalik eta gertueneko produktuen kontsumoa handitzeko sentsibilizazio kanpaina.	
	Merkatariek bertako produktuen eskaintza handitu.	
	Produktuen trazabilitatearen inguruko informazioa zabaldu.	
Elikagaien ekoizpen eta transformaziorako autoklabe kolektiboa sortu		
Baserriaren kultura balioan jarri	Eskoletan nekazaritzaren inguruan egiten diren ekimenak baserrietan egitea.	
	Baserrietan baratza konpartituak bultzatu: baserritarrak lur sail bat eskaini ereiteko norbaiti eta trukean elkarlanean landu lur sail horiek (baserritarraren eta kaletarrena).	
	Lur jabeekin natura ondarea berreskuratu edota mantentzeko lankidetasun akordioak burutu.	
	Ikastetxeetan nekazarien saioak ikasleei baserriko bizitza azaltzeko	
	Nekazaritzaren inguruko unitate didaktiko integrala (kultura, ondarea etab hartzen dituenak)	

4.2 Arloen lanketa espezifikoak Udal Batzordeetatik

Proiektu multidisziplinarez gain arloen lanketa espezifikoak egiten jarraituko da Udal Batzordeetan. Udal Batzorde hauetan parte hartzea handitzea eta hobetzea izango da erronka nagusietakoa 2014an.

Arloetan ondorengo erronkak proposatzen dira 2014rako:


Arloa	2014rako erronkak	Parte hartzea
Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> Datozen urteetarako arloko lan ardatz eta helburuak lehenetsi Guraso eskolak, Hezkuntza Plazara eta Herri Irrizalea egitasmoak garatu. 	Gaur egun batzordean eragileen parte hartzea bermatzen da (guraso elkarteak, hezkuntza zentroak, kukumixo...). Lan modu horretan sakontzea proposatzen da.
Ingurugiroa	<ul style="list-style-type: none"> Datozen urteetarako arloko lan ardatz eta helburuak lehenetsi Pago landaketa Atxolin eta Pagobedeinkatun Auzokonposta abian jarri Kaleko argiteria LED teknologiarara egokitu Garraio publikoa hobetzeko diputazioak zabaldu duen eztabaidan eragin 	Gaur egun batzordea ez da parte hartzailea. Lan ardatzak lehenesteko ariketa parte hartzea bermatuz egingo da.
Lurralde antolaketa	<ul style="list-style-type: none"> Hirigintzako plan orokorrean² Alkarrekinetik planteatutako beharrak jasotzea bermatu. Herri erdiguneko pabimentazioa berriztu. Kiroldegi gainean egokitzapen lanak hasi. Jubilauetarako irisgarritasuna hobetu. Gipuzkoa Etorbidean haurrentzat parke berria egin. 	Gaur egun batzordea ez da parte hartzailea. Plan orokorraren lanketak parte hartzeko espazioak bermatuko ditu.
Euskara	<ul style="list-style-type: none"> Euskara Plana bukatu eta bere aplikazioarekin hasi. Benetako zehar lerro izaera eman nahi zaio gaiari, beraz beste arloetan ere eragina izango du planak. 	Gaur egun aholku batzordean eragileen parte hartzea bermatzen da (pilpilean, AEK, bertso eskola...). Hala ere, batzordea zabaldu egin nahi da, euskara plan berriak lehentasunezkoak izango dituen eragin-arloetako eragileen parte hartzea bermatzeko.

² Udalean hirigintzako Plan Orokorra berritzeko prozesua zabalik dago, 2013an hasi da eta 2015ean bukatu nahi da. Plan Orokorretan herriko lurren erabilerak antolatzen dira eta 8-10 urtetik behin hartutako erabakiak errepasatu eta plangintza berria egin behar izaten da.

<p>Ongizatea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Datozen urteetarako arloko lan ardatz eta helburuak lehenetsi. • Zurrumurruen tailerrak bideratu. 	<p>Gaur egun batzordea ez da parte hartzailea.</p> <p>Lan ardatzak lehenesteko ariketa parte hartzea bermatuz egingo da.</p>
<p>Garapen ekonomikoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritzan datozen urteetako helburuak lehenetsi. • Herriko enpresekin elkarlan dinamika eraikitzea. • Herriko merkataritzako suspertzeko planaren garapenarekin segi. • Eskualdeko enplegu plana garatu. 	<p>Oraingoz ez dago batzorderik.</p> <p>Batzordea sortuko den erabaki behar da.</p> <p>Sektoreetako eragileekin harreman zuzena eraiki.</p>
<p>Kirola</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Datozen urteetarako arloko lan ardatz eta helburuak lehenetsi. • Rokodromoa egin. 	<p>Gaur egun batzordea ez da parte hartzailea.</p> <p>Lan ardatzak lehenesteko ariketa parte hartzea bermatuz egingo da.</p>
<p>Kultura</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Datozen urteetarako arloko lan ardatz eta helburuak lehenetsi. • Kultur programazioa aberastu, arte korrante ezberdinen eskaintza areagotu eta orekatuz. 	<p>Gaur egun batzordea ez da parte hartzailea.</p> <p>Lan ardatzak lehenesteko ariketa parte hartzea bermatuz egingo da.</p>
<p>Parekidetasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> • II. Berdintasan plana egin. Benetako zehar lerro izaera eman nahi zaio gaiari, beraz beste arloetan ere eragina izango du planak. 	<p>Gaur egun Emakumeen Topagunean parte hartzea bermatzen da (X emakumek parte hartzen dute modu pertsonalean). Lan modu horretan sakontzea proposatzen da.</p> <p>Plan berriaren garapenean bestelako norbanako eta eragileen parte hartze aukera bilatuko da.</p>
<p>Gazteria</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gaztematika programan pauso berriak eman. 	<p>Gaur egun batzordea ez da parte hartzailea.</p>

4.3 Alkarrekin Soraluze Eginezen izaera matriziala

Proiektuetatik zein arloetatik egingo diren lanak elkar gurutzatu eta amaraun bakar bat sortuko dute. Ondorengo irudian ikusten den moduko sarea sortuz:



5 KOMUNIKAZIOA

Komunikaziorik gabe ez dago ez informaziorik, ez parte hartzerik ezta demokraziarik ere. Komunikazioa beraz Alkarrekin prozesuaren derrigorrezko egitekoa da.

Alkarrekin prozesuan komunikazioari garrantzia ematen ahalegindu bada ere, lan hori ez dakin udal plan batetik abiatuta. Egoera hori irauli beharra dago, horretarako datozen hilabeteetan komunikazio plana diseinatuko da.

6 ANTOLAKETA

Egin nahi den lan hau eraginkorra izan dadin barne antolaketak argia izan behar du. Antolaketa horretan sortuko diren guneen zein parte hartuko dutenen funtzioak ere argiak izan behar duten moduan. Ondoren datozen argipenez gain, guzti hau jasoko duen parte hartze ordenantza bat garatuko da datozen hilabeteetan udal mailan.

6.1 Proiektu multidisziplinarren lantaldeak.

Lantalde hauen ardura izango da beraien proiektuak zehaztu eta ekintzak aurrera eramateko planteamenduak egitea.

Norbanakoen artean osatutako lantaldeak izango dira. Teknikariek, zinegotziek, eragileetako ordezkariak, herritarrek... edozeinek hartu ahalko du parte. Funtzionamendu egoki baterako ezinbestekoa ikusten dugu parte hartzaileak norbanako bezala lan egitea, eta ez bakoitzak izan ditzakeen tituluen arabera.

Lantalde bakoitzak proiektu arduradun bat izendatu beharko du. Bere funtzioak izango dira lantaldearen dinamizazioa, gainontzeko proiektu arduradunekin zein udal teknikariek koordinazioa bermatzea.

Proiektuak garatzeko udalak bitarteko ekonomikoak ipiniko ditu. Udalak ez du zehaztuko zein proiektutarako zenbat diru joango den, proiektu bakoitzeko partaideek bere asmoak aurkeztu beharko dizkie beste proiektuetakoei eta guztien artean lehenetsi beharko dituzte dauden bitarteko ekonomikoak ze ekimenetarako erabili.

6.2 Arloen lanketa Udal Batzordeetatik.

Arloen lanketarako Udal Batzordeak baliatuko dira. Udal Batzordeak gaur egun teknikari eta zinegotzietan osatzen dira normalean (hezkuntza, euskara eta parekidetasunean badaude herritar eta eragileentzat parte hartze espazioak). Arlo bakoitzak bere izaera propioa du, izaera hori zainduz udal batzorde bakoitzean parte hartzea nola sustatu pentsatu beharko da.

Ondorioz batzordeak deskargurako gune izatetik, sormenerako gune bihurtuko lirateke (dagoeneko neurri baten euskara, parekidetasuna eta hezkuntza diren bezala).

Herritar eta eragileen parte hartzeko bideak eraikitzea klabea izango da horretarako, eta teknikari eta zinegotzien jarduna ere nolabait egokitu egin beharko da asmo honetara.

6.3 Teknikarien koordinazio gunea.

Alkarrekin jarraipen integrala egingo den gunea izango da. Egunerokotasunari erantzuteaz gain, ikuspegi estrategikoaz ere egingo da lan bertan.

Udal teknikariek osatuko da baina beharren arabera eskualdeko erakundeetako teknikariek (debegesa, debemen edo mankomunitatea) zein proiektu arduradunek ere parte hartuko dute. Hasiera baten hamabostero bilduko da.

6.4 Batzar orokorra

Proiektuetan zein arloetako batzordeetan parte hartzen diharduten norbanakoez osatuko litzateke. Urtean behin egingo litzateke printzipioz, eta bertan urtean egindako ekimenen balorazioa eta hurrengo urteari begirako asmoen aurkezpen eta eztabaida emango litzateke.

Batzar hau udaletxeko aurrekontuen eztabaidaren aurretik egingo litzateke, bertako ondorioak aurrekontuetan txertatu ahal izateko.